

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2011ko IRAILAREN 7an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2011ko irailaren 7an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.45 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea  
Gotzon Jauregi Sarasola  
Imanol Aranzabal Lasa  
Karlos Irazu Muñoa  
Aritz Usandizaga Larrañaga  
*Jon Tejeria Otermin 20.00 orduetan bertaratzen da*


IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio:
  - 2011ko uztailaren 7an egindako ohiko bilkura
  - 2011ko uztailaren 28an egindako ohiko bilkura
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. Larraulgo Agerre-Berri etxe ondoko bordaren solairuarte legeztetzako baimena eskaera, M.A.L.A.
4. Tolosaldeko Mankomunitateari 1. Seihilabeteko ekarpena burutzea, hala bada.
5. J.M.A jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.
6. Fakturak eta ordainketak.
7. Beste batzuk.
8. Erregu, galderak eta mozioak.

...//...



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2011 urteko uztailaren 7ko Udalbatzaren ohiko akta.

Idazkari-kontuhartzaille andreak hitza hartzen du eta azaltzen du akta honetako 3. Puntuari buruz, hartutako erabakia legea urratzen duela, beraz legearen kontrako ohartarazpena egiten du.

Batzarkideak akta irakurri ondoren eta Idazkariak eginiko ohartarazpena kontutan izanik, bertaratuek aho batez onestu dute.

- ▣ 2011 urteko uztailaren 28ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

16/2011 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 29koa, Igor Barandiaran Perez de Arrilucea 1. Alkateordeari, Alkate funtzio eta atribuzio guztiak eskuordetzea, 2011ko abuztuaren 9tik 21 arte (biak barne), ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira

### **HIRUGARREN PUNTUA**


#### **LARRAULGO AGERRE-BERRI ETXE ONDOKO BORDAREN SOLAIRUARTEA LEGEZTATZEKO BAIMENA ESKAERA, M.A.L.A.**

Ikusirik M.A.L.A. andreak eginiko eskaera, non Larraulgo Agerre-berri etxe ondoko bordaren solairuartea legeztatzeke baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2011ko abuztuaren 30ean Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion Arkitektoak eginiko txostenean dioena:

#### ***“LARRAULGO AGERRE-BERRI ETXE ONDOKO BORDAREN SOLAIRUARTEA LEGEZTATZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA***

*“M.A.L.A. andreak, Larraulgo Agerre-Berri etxearen ondoan dagoen bordaren solairuartea legeztatzeke, Sergio Villar Sueskun arkitektoak sinatutako dagokion*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Legeztatze Espedientea aurkezten du. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Aurrekariak:*

*1997ko maiatzaren 15-ean Larraulgo udalak J.S. jaunari, Agerre-Berri ondoan 5x7m barruko neurriak izango zituen oin bakarreko borda bat egiteko baimena eman zion.*

*199ko martxoan eta eraikitzen ari zen bordaren itxura eskatutakoa baino altuagoa zela ikusirik, lanak geldiaraztea eskatu zitzaion J.S. jaunari.*

*Urte berdineko apirilaren 29-an Ignacio Diaz Goena Udal arkitektoak eraikitako bordaren aldeko txostena luzatzen du, eta 1999-ko ekainaren 3-an, Larraulgo udalak eraikitzen ari zen bordari on-ikusia ematen du.*

*Gaurregun, baimendutako bolumen berdinarekin barruan, eskarian ez zegoen solairuarte bat dago. Hau da legeztatze behar den solairuartea.*

*Agerre-Berri baserri ondoko borda, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan kokatua dago, bereziki D.20 produkzio zonaldean. Larraulgo araudiaren arabera borden mantentze lanak onargarriak dira.*

*Bordak 51,97m<sup>2</sup>-ko oinplano okupazio bat du, profila behe oina+ teilapea izanik. Gailurraren altuera 5,25m koa da eta fatxada eta teilatuaren arteko lotura puntuaren 3,20m-koa. Eraikinaren erabilera biltegi modukoa da.*

*Legeztatze espedientearen arabera solairuartea egiteko lanen gauzatze materialeko aurrekontua 6.035€-koa izan da.*


*Kode teknikoaren suteen aurkako babesaren inguruko dokumentuaren arabera, arrisku bereziko lekua da biltegi edo trasteleku hau. Hau honela izanik, 21A-113B efikazia duen su-itzagailu eramangarri bat egon beharko da bordaren barruan.*

*Azkeneko puntu hau betetzen bada, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datozenez eta 1999-an baimendutako bordaren kanpo itxura berdina mantentzen dela kontuan harturik, solairuartea legeztatzea egokia dela informatzen dut.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

**ERABAKITZEN DU:**

**LEHENGOA.-** M.A.L.A. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo Agerre-Berri etxe ondoko bordaren solairuartea legeztatze baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean zehazten den baldintzak betetzen baditu.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEARI 1.SEIHILABTEKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Mankomunitateak igorritako faktura, 2011ko uztailearen 18koa, 2011 ekitaldirako hiri hondakinen kudeaketa zerbitzuagatik, uztailetik abendura bitartean izango dena, Tolosaldea Mankomunitateari egin beharreko faktura ordainketa burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 8.788,91 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Mankomunitateari, 2011/90 fakturaren ordainketa burutzea, hau da, 8.788,91 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 8.788,91 eurotako gastua onestea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **J.M.A. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik J.M.A. jaunak eginiko eskaera, non Olatza baserriko terrenotatik segregazio baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Tolosako Notaritzan kontsultatu ondoren, aipaturiko eskaera terreno jabeak egin behar duela azaldu diguten, oraindik J.M.A. jauna terreno horien jabea ez delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.M.A. jaunari jakinarazi eginiko eskaera ezin dela burutu, bera ez delako Olatza baserriko terrenoaren jabe.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

*Jon Tejeria Otermin zinegotzia une honetan bertaratzen da.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KIROLZER	118,45
EBA ERKIZIA BRION	693,78
IRATZE	100,65
URBELTZ AUZOKO ADMINISTRADOREA	80,00
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	182,63
FERRETERIA BARBE	40,10
KIROLZER	133,45
UROLA TUBOS	68,22
MRW	26,33
IBERDROLA	26,83
IBERDROLA	27,34
IBERDROLA	143,48
IBERDROLA	86,12
IBERDROLA	40,92
IBERDROLA	118,45
IBERDROLA	94,68
IBERDROLA	1,73
IBERDROLA	210,93
IBERDROLA	66,84
IBERDROLA	113,21
KEY-LAN	156,94
MOVISTAR	90,22
MOVISTAR	20,47
EUSKALTEL	198,04

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,


ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **2.839,81** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **7.1. PELLO ERROTA IKASTETXEAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA.**

Ikusirik Pello Errota ikastetxeak eginiko eskaera, non eskatzen duten haurrak soinketa egin ondoren dutxatzeko ohitura hartzea nahi dutenez, dutxak erabiltzeko baimena eskaera egiten duen.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak ez dituela azpiegiturarik, Pello Errota Ikastetxeak eginiko eskaera onartu ahal izateko.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Pello Errota ikastetxeari ematea.

### **11.2. PELLO ERROTA IKASTETXEAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Ikusirik Pello Errota Ikastetxeak eginiko eskaera, non Larraulgo Udalari hainbat eskaera egiten dien:

- Asteazken goizez, LH koak liburutegira joateko baimena eskaera.
- Frontoian, Eskolako haurrek lehentasuna dutela esaten duen kartel bat jartzea, bai atsedean garairako baita ere soinketa dutenerako.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Pello Errota Ikastetxeak eginiko eskaera onestu, hau da, LHkoak asteazken goizean liburutegira joateko baimena ematea.

BIGARRENA: Pello Errota ikastetxeak eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo Udalak, frontoian kartel bat jartzea, non adieraziko den eskolako haurrak frontoia erabiltzeko lehentasuna edukiko dutela, bai atsedean eta soinketa garaiko.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri Pello Errota ikastetxeari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Jon Tejeria zinegotziak azaltzen du badaudela herri bide batzuk sasiz josiak daudela eta herri gunean belarrak moztuta daudenez, herri langileari esatea herri bideetako belarrak mozteko.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkate jaunak Tejeria zinegotziari erantzuten dio esanaz, herri langilea abisatuta dagoela, baina obra batzuk exekutatzen ari direnez, Larrola inguruan, hauek bukatu arte itxaroten ari zirela.

Karlos Irazu zinegotziak ere azaltzen du Lizar bat omen dagoela bide kontra eta handia egin aurretik moztea komenigarria izango dela. Proposamen hau kontutan hartuko da.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.10 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA